

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ENEKO IRIGARAI

EMETERIO ELORDUI, GERRA UGARIKO BORROKALARIA, ALJERREN

Emeterio Elordui, Gatiakan jaioa eta PCEko militantea, Gerra Zibilean makinista aritu zen itsasontzi batean. Odesatik (garai hartako SESB) Cartagenaraino armada errepublikanoa-
rentzako armak garraiatzeaz arduratu zen ontzi hura. Gerra amaitu eta gero, Estatu frantsesean atxilotu eta Argeles-sur-Merrek esparrura eramane zuten. Frantses Estatuaren in-
basioaren ondoren, Vichyko Gobernuak, nazien aldekoak, Aljeriara deportatu zuen, Colomb Becharrek barneratze esparrura. Han, presoek trenbide transahararra eraikitzen lan
egiten zuten. Bertako bizi kondizio gogorrak eta tenperatura altuak zirela eta, preso asko gosez eta paludismoz, disenteriaz eta beste gaixotasun batzuek hiltzen ziren. Elordui
zortea izan zuen, bere zaindariatako batek, Donibane Lohizuneko sarjentu batek, bere jatorria jakinda, sukaldeetara bidali baitzuen bizia salbatzeko. II. Mundu Gerra amaituta, Alje-
rian finkatu zen eta herrialde haren independentziaren aldeko borrokan parte hartu zuen FLNrekin. Euskal Herrira itzuli zenean, euskal mugimendu independentistako kide izan
zen. Artikulua ilustratzen duen argazkia 1970eko uztailaren 5ean egina da, Aljeriaren independentzia ospatzen zen egunean, hain zuzen. Eneko Irigarai izan zen egilea, eta Anto-
nio Cubillo, MPAIAC Kanarietako Artxipelagoaren Autodeterminazio eta Independentziaren aldeko Mugimenduko burua izan zena, haren emazte Maria Teresa, Emeterio Elordui eta
haren emazte Aurora eta bi seme-alabak ageri dira. Argazkia La Salleko fraideek Aljerren zuten eskolan egina da. Eskola hura Zizurkilgo anaia Joxe Arrastoak zuzentzen zuen.